

# DIRU SARRERAK

Gure negozioak eskainiko duen kalitate-maila dela eta, prezioak pixkat altuak izango dira, helere, ahal den neurrian, prezioak konstante mantentzen ahaleginduko gara.

Funtsean gure enpresak bi diru sarrera mota izango lituzke, alde batetik ordainketa bakarreko diru sarrerak, hau da, bezeroek gure arropa erosterakoan irabaziko genukeen dirua. Gure negozioa, produktuaren kalitatean oinarrituko gukeenez, arropen prezioa ez litzateke baxua izango, halere, ahal den neurrian, prezioak baxu mantentzea da gure asmoa.

Beste alde batetik, ordainketa errepikariak ere baliatuzko genituzke. Alegia, bezeroak nahiko balu, bazkidetu ahalko litzateke hilabetero 4-5 € ordaintzearen truke. Bazkide izateagatik, hainbat promozio, diseinu gehigarriak, beherapenak eta halakoak eskainiko genieke.

Horrez gain, beste diru-sarrera bat publizitatea baliatuz lortuko guke; gure web-orrian, beste negozio eta enpresen iragarkiak gehitu ahalko genituzke. Horrek, elkarkidetasunak ere sor litzake.

Noski, gure negozioa abiarazteko, lehenengo, inbertsio handia egin beharko guke, bankuari mailegu edota kredituak eskatuz.